

Bi hamarkadaz Donostian irakasle izan ondoren, aurten apaiztu da Nicolas Prieto

Hezkuntzak irakatsi dit
pazientzia izaten. Gaztetxoek –
eta helduek ere bai- denboraldi
txarrak pasatzen dituztenean,
itxaron egin behar da

2004 Eka 17

**Nola eman zenuen saltoa
hezkuntzatik, Erain ikastetxetik,**

apaiz izatera? Zer ikasi zenuen Erainen? familiengandik?

Hezkuntza barnean neukan, zeren Filosofia ikasi bainuen eta, gainera, oso hurbil daukat nire gurasoen eredua. Maisu-maistrak izan ziren berrogei urte baino gehiagotan, herri txikietan. Irakaskuntzak familien, pertsona guztien, ilusio eta arazoak ezagutzera eramaten zaitu. Horrek asko erakutsi didala uste dut.

Adibidez, pazientzia izaten, zeren batzuetan haurrek eta gaztetxoek – helduek ere bai, noski– denboraldi txarrak pasatzen dituzte, eta itxaron egin behar da, larritu gabe, eta lagundu egin behar zaie, zure ahaleginek itxuraz ezertarako balio ez badute ere.

Azal al diezagukezu gertaera erabakigarriren bat zure deiaren bidean?

Urte asko daramatzat Opus Dein, eta ikasi dut Jainkoa bilatzen, eta

besteak nire lanean zerbitzatzera, egunez egun, sinesmenez eta modu zehatzez arituz. Apaiz izatea “lanbidez” aldatzea da, baina nire bizitzako helburuak, xaloa eta zorrotza aldi berean, ez du aldatu beharrik. Lanean, proiektuak izateaz eta planak egiteaz hitz egin ohi da maiz ... Nik ez dut inoiz nire bizia proiektu bezala ikusi, baizik eta dei baten erantzuna bezala. Ekimena Jaunari uzten saiatzen naiz, eta gero berak eskatzen didanari erantzuten, ahalik eta ondoen. Horrela heldu naiz ere apaiz izatera, ez zen nire ideia izan, pozez beterik hartu nuen oparia baizik.

Apaiz egitearen berria dela eta, zure familiaren pasadizoren bat edo adiskideen erreakzioak?

Nire ama, senideak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak oso pozik daude. Familia luze eta batua da gurea, baita Amerikan bizi direnak

ere. Haiek beren mail-en eta otoitzen bidez lagundu naute. Benetan poztu ninduen batxilergoko aspaldiko lagun batek. Merkataritza nabigazioan lan egiten du, eta untzia utzita, Erromara etorri zitzaidan emaztearekin egun batzuez. Eraingo guraso batzuk ere etorri ziren, ikasle batzuekin, eta beste askok idatzi edo telefonoz deitu didate aste hauetan. “Hitzez” euskaltegitik ere deitu zidaten, hango ikasle izan bainintzen. Berezi gogoratzen dut aspaldian istripu batean semea galdu zuen familia bat. Haien gutunetan kristau adiskidetasun ikasbide eder bat jaso dut.

Nolako eragina izan du zugan Aita Santuaren jarraibideak?

Beste batzuetan Erromara joan eta Aita Santua ikusteko aukera izan banuen ere, San Pedroren hilobiaren ondoan bizi izan naizen urteok bereziak izan dira benetan. Elizaren

zabalkuntza ikusteak bihotza ukitzen
dit, adibidez, hiria betetzen duten
Afrikako, Asiako eta
Latinoamerikako hainbeste apaiz,
lekaime eta erromes. Eliza katolikoa
gainbeheran dagoela edo
Kristorengan sinesteak
erakargarritasunik ez duela
pentsatzen dutenek erabat oker
daude. Aski dugu begiak zabaltzea.
Joan Paulo II.aren 25.
aitasantutzaren urteurrena
hurbiletik bizi izan dut eta italiarrek
–erromatarrek batez ere– dioten
maitasun beroa ikusi dut, hala nola
Aita Santu honen indarra bere
zahartzaroan. Ia egunero, RAIko
Telegiornale-ri eskerrak, haren
egintzak, garai gogor hauetan
herrien arteko bakearen alde egiten
dituen ahaleginak, jarraitu ahal izan
ditut. Eta aldi berean, hemen bizi
izateak, nire herria gehiago
maitatzera bultzatu nau, beste modu
batez ikustera, eskerronez.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/bi-hamarkadaz-donostian-
irakasle-izan-ondoren-aurten-apaiztu-
da-nicolas-prieto/](https://opusdei.org/eu-es/article/bi-hamarkadaz-donostian-irakasle-izan-ondoren-aurten-apaiztu-da-nicolas-prieto/) (2026 Ots 26)